

Ormaiztegi. Lana, festaren eta heriotz erritoen artean

Ormaiztegi herriaren iraganari arretaz begiratzen badiogu, ikusiko dugu, elizako ordulariaren berezko funtzio publikoa ahaztu gabe, bizieta eliz parrokiako dorrean uztai banatatik eskegitako kanpaien deiek arautzen zutela batipat.

Kanpaia argi eta garbi mintzo da, taldeari etxekoa egiten zaion hizkuntzan. *Matutie* izeneko deiaz goiztiria, egun berriaren argia, iragartzen du; eta Amabietakoaz edo eguerdiko Angelusean Aitagurea edo Kredoan errezatzen du; eta Ormaiztegiarrak Kredoan errezatzen du baita arratsaldeko hirurretan ere, ostiralero, etxean nahiz soroan, Jesusen nekaldi eta heriotza oroitarazten duten hiru kanpaikada geldia eta akonpasatuak entzuterakoan. Arratsaldean, Agur Maria errezatzen deiak, *Abemarietakoak*, burutu egin direla adierazten du besten ageriko ospakizunak.

Ez dugu, eguneroko mezuaz kanpo, *su-kanpaiaren* dei urduri eta presatua ahaztuko, suak eragindako zoritxarren bat gertatu izana jakinerazten duena eta ekitera deitzen diona giza elkartasunaren izpirituari, heriotzaren berri tristea aireratzen duen il-kanpaiaren deiarekin nabarmenduko den giza elkartasunari.

Erlojua aipatu dut, eta Erdi Aroko tresna honi buruz esango dut, 1754ko apirilaren 29ko urteguna daramanean

cuenta de todo lo que han producido la mitad de los Diezmos y el todo de la Primicia de la referida iglesia parroquial en los últimos catorce años, desde el de mil setecientos y cuarenta hasta el de cincuenta y tres, ambos inclusive,

izenekoan hurrengo oharra irakur genezakeela:

Item. cuatrocientos y ochenta y siete reales y medio pagado a Juan de Mendizabal, maestro relojero, por la mitad del coste y trabajo que tuvo en renovar y componer el reloj de dicha Parroquial, por hallarse muy viejo, con falta de piezas, y que no servía sin renovar, y la otra mitad del coste pagó esta dicha Villa, consta de recibo del expresado Mendizabal¹.

1. Ormaiztegiko udal artxibategia.

Askos berriagoa dugu Ignacio Zubillaga erlojugileari buruzko aipua. Produktio ugari sortzaile hau, pertsonalki ezagutzera helduko ginena, 1868. urtean jaio zen Oresako «Jaundabarren» baserrian, eta beste erlojuren artean Ormaiztegioko egin zuen. Ignacio Zubillaga Tolosan hil zen, 1948. urtean².

Iragan ez oso urrunerarte Ormaiztegioko lan mundua funtsean baserri bizitzaren ingurukoa zen. P. Gorosabel eta P. Madoz-ek seinalatzen duten legez, XIX. mendeko bi autore aipatzeagatik. Baieztatu egiten du Serapio Mujika, herriko seme ilustreak, zera esaten duenean: (. ..) *Y en estos 60 caseríos y en aquellas 30 casas del casco, viven los 633 habitantes de Ormaiztegui, dedicados a sus faenas, que son agrícolas casi exclusivamente*³. Baserri mundu honek, erantsiko dugu guk, badu bere inguruaren beharkizunei erantzuteko neurriko etxe-industria, ahaztu gabe Zerain eta Mutiloako udaletan kokatutako burdin meatzak ez zeudela Ormaiztegiarren lan ekimenetik bazter. Meatzon inguruko arazoak ere kezka ziren Ormaiztegin, hain gaurkotasan haundiko ibaien gardentasunaren auziaz arduratzen den hurrengo adierazpenetik antzeman daitekeenez:

El reparo del daño que hacen Cerain y Mutiloa en el río de Tolosa con sus veneras.

Este día –1623go azaroak 17– La Junta confirmó el decreto de la Junta pasada de la Villa de Tolosa, en razón del daño que resulta en los ríos de las veneras de Mutiloa y Cerain, y atento que en la dicha Junta se nombro persona para que fuese a las dichas veneras e hiciera las diligencias necesarias y pusiera el remedio más conveniente, no lo ha hecho, de nuevo se da comisión a Martin de Abadía, Procurador juntero de la villa de Beasain, para que, a costa de los culpados, ponga el remedio necesario y vaya dando cuenta a esta Provincia en sus Juntas generales o en las Diputaciones de las diligencias que fuere haciendo.

La villa de Ormaiztegui dijo que recusaba al dicho Martín de Abadía por odioso sospechoso, por cuanto es parte interesada.

La Junta, sin embargo, confirmó el dicho nombramiento⁴.

Ormaiztegi hirigune txikia atsedean eta pakean bizi da, jai-ospakizunak eta eskola utzi orduko, belaunaldiz belaunaldi iraun duten jolas desberdinetan murgiltzen diren neska-mutilen oihuek hausten dutena.

Neskak *orraz-jokue* deitu jolasean eta *tronkalakulluan* aritzen dira, biak nahiko antzekoak, eta mutikoak berriz *Santu edo Letra* eta *Txuloran* izeneko jolasetan.

2. Juan Garmendia Larrañaga: *Euskal esku- langintza - Artesanía vasca. II*. Bol. «Zubillaga errementaria. El errementari Zubillaga». Auñamendi argit. 1970. 106-111 or.

3. Serapio Mujika: *Geografía General del País Vasco Navarro -Provincia de Guipúzcoa. Ormaiztegui*. 868. or.

4. Juan Garmendia Larrañaga: *De Etnografía Vasca (Cuatro Ensayos): El Caserío, Ritos Fúnebres, Galera del boyero. Las ferrerías*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1976. 234-5 or.

Orratz jokuan, neska batek zenbait orratz gordetzen du eskuan eta Pares o Nones? galdegiten du. Erantzuna egokia bada, orratzak asmatu duenarentzat izango dira, eta kontrako kasuan, alderantziz.

Tronkalakullurako, neska batek eskua itxi behar du barruan orratz bat gordez, eta jolaskide batek Tronka!, oihua egingo du. Orratzaren burua gora begira baldin badago, asmatu egin du eta orratza berarentzat. Alderantziz izatekotan, berea eman beharko du. Orratza ematen dio eta jokua ere bai, *-Jokue eman-* eta deskribatutakoa errepikatzen da.

Santu edo Letrara jolasteko, mutil batek poxpolu kaxaren estalkia hartu, eta besoa altxata daukala eta ormaren ondoan, lurrera eror dadin uzten du, beste jolaskide batek Santu! edota Letra! oihukatzen duen bitartean. Kartoia lurrean marrazkia ahozgora duela geratzen baldin bada, ikusteko moduan, Santu! esan duenarentzat da, eta alderantzizkoan, asmatu ez duenak galdu egiten du kartoia, bere kidearena izatera pasako delarik.

Txuloran jolasteko, zulo txikia egiten da lehen lehenik lurrean eta handik hiru bat metrotara marra batez markatutako lekutik intxaurra sartu behar da zuloan, arras lurretik edo airera boteaz.

Helburua lortu dutenen artean banatzen dira txulotik kanpo geratutako intxaurrak. Inork ez badu zuloan sartzen asmatu, behatzez jotzen da intxaurra eta lehenik asmatzen duenarentzat izango dira guztiak. Gogora eskolatik irten ondoko aisea ekarri badugu, hurrengo testua Ormaiztegiko udalaren bertako irakaskuntzari buruzko kezka mintzo zaigu:

A la viuda de Aizpeurrutia.

En mi Ayuntamiento General de este día he acordado establecer la escuela de primeras letras interinamente a cargo del Rector de mi Iglesia Parroquial, Dn. Eusebio Antonio Zumalacarregui, poniendo a su disposición las mesas, bancos y demás enseres correspondientes a dicha escuela; en consecuencia pido a Vd. entregue a dicho Señor todo lo que hubiese quedado correspondiente a la escuela en su Casa habitación, al tiempo del fallecimiento de su último poseedor Dn. Juan Antonio Aizpeurrutia.

Dios que a V.m.a. De mi Ayuntamiento de 17 de febrero de 1826.

El Ayuntamiento de esta N. y L. villa de Ormaiztegui hace saber que ha establecido su Escuela de primeras letras, interinamente a cargo de Dn. Eusebio Antonio de Zumalacarregui, Pro. Rector de esta Iglesia Parroquial, y considerando a que una de las primeras obligaciones de todo padre es comunicar a sus hijos toda la instrucción posible, invita a que hagan asistir con toda puntualidad a la escuela y hacerles cumplir y observar los preceptos que les imponga el Maestro. Dado en Ormaiztegui a 17 de Febrero de 1826.

1826.ko abuztuak 10 dituenean, Eusebio Antonio de Zumalakarregik utzi egiten dio irakasle izateari, apaiz lanetara bete betean emateko⁵.

5. Ormaiztegiko udal artxibategia.

Ormaiztegiko eliz parrokia San Andresi eskeinia dago, ospakizun horrek, azaroaren 30an, baserriaren bizimoduan neketsua izan ohi den hilabeteari, jai ospakizun alaiean, despedida egiten diolarik.

Santu Guztien egunean, elizako hilobi bakoitzeko hiruzpalau tortel eskeintzen ziren, *opillek*, apaiz batek biltzen zituena, etxera inguratuko zitzaizkion neska-mutilen artean banatzeko. Hurrengo egunean, azaroaren 2an, Hildako Eliztarren Oroitegunean, gauza berbera egiten zuen parroikiko beste apaiz batek.

Azaroan, baserritarraren zereginetako bat garoa, 30 zentimetrotako ahoa duen segaz, *ota-segeaz*, ebaki dutena etxera bildu beharra zegoen. Garoa, orgaz edo *gurdiz* etxeratua, lurrian zabaltzen zen, etxaurrean, *loar-tokie* esan ohi zitzaion lekuan. Gurdiaren kurpilez xehekatzen zen garoa, zimaur edo *simaurreaz nahastu* eta pilatu egiten zen, beranduago larrean erabilia izateko, apirila eta maiatzean, artoa ereiterakoan.

Azaroan zehar bildu beharra zeukaten baserriko behe-suak behar izango zuen egurra, *su-egurre* esaten zitzaion, eta hilabete horretan burutzen zuten, urrian egindakoari jarraiki, gaztain bilketa. Zeregin honetarako, baserritarra zuhaitz gainera igotzen da lehenik eta makil baten bidez bota egiten du fruitua, gero, *matxardea* deitutako egurrezko tenazak erabiliz lurretik jasoko duena, bere triku-azal edo *morkotsa* eta guzti. Gaztaina morkotsa duela garraiatzen zuten, gurdiz *gurdi-kajea* ixteko behar ziren egur oholak erantsi ondoren, edota garbia jasotzen zuten, eta kasu honetan zakuak erabiliko zituzten, behar adina. *Morkotsa* eranste lana ere baserrian burutzen da eta gaztain fruitua prest uzten da bai salmentarako, bai etxebarruko kontsumorako.

Baserriko mahaiean ez da gaztainik falta, irailetik martxora bitartean batez ere. Oroitaraziko dugu 1766ko matxinoen eskakizunetako bat zela fruitu hau hamarren edo ditzimatatik libre gera zedila, biztanlegoaren zati zabal batean zeukan garrantziaren adierazgarri. Gaztainaren orde, arto opilak hartzen zituzten esnetan *-taloa eta esnia-* edo esnea egosi berria zenean *artoa esne egosi berriarekin*.

Azaroan garia eta lihoa eraiten ziren. Horretarako egurrezko idun edo pertika duen burnizko goldea erabiltzen zuten lehenik, *golda txikie* izenekoa, behi pare batek eramana. Gero lurra *berdinu* egiten zuten, aitzurrez, eta *azie* eraiten zuten. Zeregin hau *area* izeneko tresnaz burutzen zuten, txikia izanez gero *-hogeia bat ortzetakoa-* are-txikie izango zen, eta haundia izanez gero *-hogeitalau bat ortzetakoa-* *are-aundie*, behi pare batek eramaten zuelarik. Bataren edo bestearen erabilkera lur moietaren araberakoa zen.

Azaroko gauetan, Ormaiztegiko baserriak *artotxuriketa* edo artoa aletzeari ekiten zion, egun batzutarako sahiestua geratzen zelarik arilketa lana, gehienetan emakumearen esku egoten zena. *Artotxuriketarako* familia biltzen zen auzoen lankidetzat zutelarik. *Arto orrie* edo *txokorrea* mandioan edo *ganbaran* gordetzen zen eta elikatze edota ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen zuten. Arto orriez egiten zen, baita ere, koltxoia edo *lastaira* zigarroak biltzeko erabiltzen zirela ahaztu gabe.

Artaburu edo *arto-burua* oinean zulatutako gaztain enbor hustuan sartu ohi zuten eta mazu batez joaz aletu egiten zuten, ahalbait ondo. Lan hau eguraldi txarreko egunetan egitekoa da. Arto aleak gordetzeko *kutxak* izan ohi zituzten, eta *arto-buru* edo *koskolak* sutan bukatuko zuten.

Adierazia daukat azaroaren despedida jai dela Ormaiztegin.

San Andres goizean Segurako txistulari edo *tanbolintero*en etorrerak giro-tzen zuen herria. Meza Nagusiaren ondoren *bertsolarien* ihardunak eta *aurreksua dantzatzeak* herriko enparantzara ekarriko zuten festagunea. Gero-ago, neska-mutil gazteak eliz parrokiaren atarira bilduko ziren eta mutilak gari irinez egindako *erroskilla* eskeiniko zion eta arto irinez egindako beste luze-ago bat, *piper opilla*.

Egurdian ez ziren izango oilo salda, garbantzua, aza eta odolki, haragi egosi, arrozene, intxaur eta mizpira, ardo edo sagardo, kafe eta pattarraren faltan.

Arratsaldean, *Elgoeneko* eta *Barreneko* auzoetako ordezkariak (eliz parrokia ardatz hartuta herriaren goi partekoak eta behe partekoak) *koskol apustu* edo artaburuaren desafioan lehiatuko ziren.

Aurrera jarraitu baino lehen egokia deritzat mahaiera eseritzen zirenek, mahaikideen kopuruaren arabera, ontzi bakarretik edo bi ontzitatik jaten zutela jakineraztea.

Edalontziak ere bakar bat edo bi izango ziren. Mahai guztirako laban bakar bat, koilarea eta tenedorea egurrezkoak, egurrezkoa zen bezala artopilarekin erabilitako ontzia. Kafea, buztinezko beste ontziak bezala, Zegamako buztinolan egindako tazatan hartzen zuten.

Burdinezko sartagien forjaketa herriko forjariren baten esku egoten zen. Joan den mendearen amaieran bi burdinola zeuden Ormaiztegin, Gaspar Goi-koetxearena bata Telleri-Arte etxean, eta Francisco Zubillaga edo *Patxiko errementarierena*, *Berjaldegí-Zarreko* behekaldean.

1839ko abuztuaren 2an Jose Franzisko Irizar Zatarain jaiotzen da Ormaiztegin. Jose Franzisko Irizarrek, baserriari dagozkion zereginak betetzearekin batera, lanabes desberdinen egurrezko zatiak egiten zituen, gurdiarenak batez ere. Erabiltzen zituen tresnatatik aipatuko ditugu, barreñoa edo *taratulue*; *opatxurra* edo aitzur txikia; *aizkorea* eta forma nahiz neurri desberdineko zurzizel edo trintxak. Gurpilaren zati ferratuaz Segurako errementari bat arduratzen zen.

Jose Franzisko Irizar Zatarainen lanari, Jose Lorenzo eta Zezilio bere semeek jarraitu zioten, azken hau Ormaiztegin jaioa delarik 1881ko otsailaren 2an. Zeziliok burdingintzan ihardun zuen eta Jose Lorenzo egurra lantzeraz emandako esku langilea izan genuen. Bien artean egiten zituzten baserri tresna desberdinak, gurdia barne. Artesau horiengan dugu *Carrocería Irizar Hnos.* industriaren sorrera, garapen prozesu luzearen ondoren gaur egun arte iraun duena.

Gure asmoa bideratzeko esango dugu *otasa* izeneko ogia *zikirioaz* edo zekale irinez egiten zutela. Horretarako, laborea errotara eraman behar izaten zuten eta *errotarie*, *irabazi gisa*, *laka* esaten zitzaion zati batekin geratzen zen, kasu honetan zekale sorta batekin.

Ormaiztegin hiru erroten berri dugu, herri honetaz arduratu diren hainbat ikerlek apuntatu izan duenez. *Lapatxa errota*, herriaren gainaldean zegoen, Gabiriako herriaren muga; *Lapatza errota*, eliz parrokiko atzekaldetik hurbil eta *Iraegiko errota*, *Elbarreneko errota* izenaz ezaguna, «Olea» baserriaren inguruan.

Irina *galbaie* edo galbahetik pasa erazten zen, *galbaitu* egiten zen eta *oremaia* –ore mahaira– botatzen zen, buruz beherako konoaren itxurako kajoiera. Irinari apur bat gatzatutako ur epela eransten zitzaion, eta eskuz nahasiaz lortzen zuten ore homogeneoa. Mahai baten gainean, eta labana erabiliz, orea zatikatu egiten zen, zatiak zenbait dobletan tolestutako manta gainean ipini ondoren. Estalki honek legamiaren eragina dauka orearengan, gero, *ogie sartzeko palaz*, egosketa behatzeko ere balio zuenaz, labean sartua izan zedin. *Labea* batipat haritz, pago, edo sagar egurrez elikatzen zen. Egin gabeko ogia adreiluzko zoluaren gainean uzten zen, behin txinarrak garbitu eta gero. Eginkizun honetarako *txillarrezko erratza* erabiltzen zuten.

Abenduan, azarorako adierazi ditugun eginkizunekin jarraitzen du baserri-tarrak. Baserrian zaintzen dira eta sarritan, bai egin eta konpondu ere, lana-besak. Orain arte aipatu ditugunez aparte ohe motzeko gurdia edo *salto-gurdie* ekarriko dugu gogora, enbor garraiorako erabili ohi zena; arrastrilo edo *eskoarea*, eta abere bakarrarentzako *uztarria*, *uztarri bakarra*, eta birentzako, *uztarri aundiya*, idientzat behientzat baino haundiagoa. Lan tresneriekin batera, *zorrotz-garie* aipatuko dut, baserri bakoitzak ola-gizonari urtero ematen zion *gari saila alegia* –*lakari* bat, nere informatzaileek diotenez–, hainbat tresnaren zorrozketaren truke. Artesau forjariaren etxera eramate hau, gehienetan abuztu bitartean egin ohi zen. Olagizonarekin egiten zen kontratu edo hitzarmena *ajustatue* izenaz omen zuten ezaguna.

Negurako lan berezia izaten zen *otea* moztearena, *ote-sega* edo *sega motza* erabiliz. Landarea garraiatzeko, *oteak ekartzeko sardeaz* baliatu ohi ziren, ertz banatan kakoa zeukan egur horizontal batek burutzen zuen makila alegia. Bizkarrean eraman ohi zuen baserri-tarrak, *oteak ekartzeko sardea*.

Otea, *otaskea* izeneko ontzian utzi ohi zen, bertan xehekatzen zutelarik, metro bat inguruko espatula metalikoaz aho oso zorrotzekoa eta egurrezko kirtenekoa. Gero, aurrez *otaskea* horretan bertan xehekatutako arbiz eta lastoz nahasten zen. Azken operazio hau ganaduaren kontsumoaren beharrek eskatu ahala egin ohi zen.

Ormaiztegiko Eguberriak, *Gabon Eguna* dira, eskolaroko neska-mutilak eta gazteak *Gabon eskea* egitera ateratzen ziren eguna.

Lehenengoek egunez egiten zuten eskea, eguneroko arropa arruntez jantzirik, eta pikuak, gaztain erreak, sagarrak eta bost zentimotako txanponen bat jasoko zituzten.

Gazteek gauez egiten zuten. Blusa jantzirik, abarkak zituztela oinetan. Kantatu egiten zuten aho-armonikaz edo *auko soiñuez* lagundurik, muturrean su emandako lasto piloak *-lasta azaroak-* erabiltzen zituztelarik argia emateko. Baserritarrek *erriko tabernara* eramaten zuten lastargiak prestatzeko behar izaten zen lastoa, argiaztakera basa hau erabili beharko zuten egunerako, Udaletxetik, trukean, ardoa edo sagardoa eta hamar zentimo txanponetan jasoko zituzten.

Oraindik indarrean dirauen ohituran, *Gabon Egune*ko eskean kantu hau entzuten da aterik ate:

Goazen goazen guztiok
Bertatik Belenera
Adoratu dezagun
Aurtxo jaio dana.
Batzuek oiuz-oiuz
Bestiak farrez farrez.
Salto eta brinko
Salto eta brinko
Arin egiñez
Arin egiñez.

Jose ta Maria
Belengo errian
Ostaturik ezinik
Daude portalian.
Aurkiturik onela
Tristeza aundian
Jaio da gure Jesus
Gauaren erdian.
Herodes erregeak
Eman du sententzia
Kentzeko bereala
Jesusi bizia.
Aur odolez bete du
Belenen guzia
Bainan etzaio baliatu
Bere malezia.

Goazen goazen...

Egun horretako afarirako, aza eta odolkia izan ohi zuten, eta bakailua, morroi zebilen mutikoari esker agian, hala nola sagar eta piku konpota, edo etxean prestatutako irasagarra. *Urte Zar* eguneko afaria ez zen Gabon gauekoaren desberdina izaten.

Arestian aipatu morroiari jai eman ohi zitzaion Gabon Egunez *-dakigunez* beste herriren batetan, Orexan hain zuzen, Eguberritako Bazkoaren biharamunean eta Pizkunde Bazkoarenean ematen zitzaien jaieguna– eta bakailua egiten zitzaion opari. Ohitura zen morroia ugazabaren mahaira eseritzea, bere kontratuan erabakizun zegoen kopurua zehazten zuen eta, sarri askotan, gal-

tza pareta eta larruzko abarka bi tartean zirelarik. Morroiari hiletak ugazabei baino klase edo kategoria beheragokoan egiten zitzaizkion, nahiz eta badiren arau nahiko zabaldu honetatik at geratzen diren kasuak.

Urtarrilaren lehenean berritzen ziren Ormaiztegin izate ganaduzaleko hiru Anaiarte edo *Ermandadeen* buru egingo zuten hiru arduradunak. Gizon hauei *komisionatuak* esan ohi zitzairen, eta beren izendaketa herriko tabernan egin ohi zen, bazkide guztien artean.

Abereak gaisotu edo hil eginez gero *komisionatuei* ematen zitzairen berri, eta hauek egiten ziren abelburuaren arduradun. Galdutako aberea bere base-rrian akatu, eta zegokion *Ermandadeko* bazkideen artean banatzen zen haragia. Elkarre horietan galerak banatzen ziren kide guztien artean, onura asmorik batere gabe. Esandakoarekin daukan zerikusiatatik, aipatuko dugu behia umea egiteko zegoenean, Lierniko Ama Birjinari eskeintza egiten zitzaiola, litro bat esne edo pare bat oilo eramanez.

Urte berrian, urtearen lehen egunean, *zagi-ardoa* ateratzen zen enparantzara, gaur egun Corpus Christi edo San Migel egunean egiten den bezala.

Urtarrilaren 22an San Bizente eguna da, Ormaiztegin, jakitea izan dudanez, errebrautegia aberasten duena: *San Bizente otza, negu erdiko biotza. Sepaie, erdi; ganbarak, oso.*

Azarorako eta abendurako deskribatu ditugun eginkizun arruntek berdin balio dute urtarrilerako eta otsailerako.

Otsailean artzaiek birigarroa ikusten bazuten zuhaitz gainean kantari, eguraldi onaren seinalea zuten, eta txoriak zuhaitzaren beheko adarretatik egiten bazuen kantua, eguraldi txarra ari zen iragartzen.

Otsailaren 2an, Kandelaria. *Kandelero egune* jaia zen Elizarentzat, Garbi-kundea ospatzen bait du aldi berean. Egun horretan bedeinkatzen dira txirioak, *argizaya eta kandelak*, ekaitza inguratu edo etxean norbait berriki gaisotua, azken jaunartzearen premian edo hil urren zenean piztu ohi zituztenak.

Erramu Egune edo Erramu Igandean ereinotz adarrak bedeinkatzen dira. Adar horiekin egiten zituzten etxearen kanpokaldean, leiho eta ateetan ipini ohi zituzten gurutzeak. Soro guztietatik barreiatzen ziren gurutzeak dira, maia-tzaren 3an egin beharrekoa, *Santa Krutz egunez*. Gurutz horiei *Kandelero egunean* bedeinkatutako kandelaren tanta batzuk botatzen zitzaizkien eta soroan, lurrean tinkatutako makil edo *esola* baten irekiduran lotzen ziren, aurrez Kredoa errezatu eta ur bedeinkatutan igurtzitako ereinotz-adarrez soroa bedeinkatzen zutelarik. Praktika jainkotiar hori bera betetzen zen zuhaitz baten *txertatzea* baino lehen.

Ereinotz adarrak, arropa egosteko edo etxe guztietan zegoen ontzi edo tiñarako behar izaten zituztenak, ekaitzaren arriskua uxatzeko ere erabiltzen ziren. Honetarako orri hauetako bat edo bi sutara bota eta kandela bedeinkatzen zuten.

katu bat pizten zuten. Baziren baita ere ekaitzaren mehatxuarekin ereinetza ur bedeinkatutan busti eta, txapela erantsi eta Aitagurea errezatzen zuten bitartean, baserriko ataritik beren soroak bedeinkatzen zituzten familiak.

Etxeko gaiso larria aipatu dugu arestian eta ekaitzaz mintzatu gara. Gure saioaren harian, gaisoak herri medizinarekin dauka lotura eta ekaitzak, konjuoroaren praktikaren aieruarekin.

Aski ezaguna da medizina nolabait esateko *ortodoxoaren* baztarrean, kuranderismoaren hainbat formularen errotze sendoa.

Arbasoengandik jasotako etxeko sendabideei leial, Ormaiztegin katarroa sendatzen zuten; toserina edo *txutxurrutxu eztule*; elgorri edo *gorriñe*; hepatitisa edo *gibebeke miñe* etab.

Konjuoroari buruz esango dugu eliz mutil edo *akolitoak* lagundurik, apaizak, egun zehatzik gabe, herriko behekaldeko baserrietatik ibilia egiten zuela eta etxeko ataritik konjuoroa egin beste apaiz batek herriaren goikaldean berdinean egiten zuelarik. Errito erlijioso hau betetzearen truke, baserri bakoitzak dozena bat arraultzen eskeintza egiten zion apaizari. Honetaz gain, *konjuoro garie eta konjuoro artoa* izenez ezagututako ordaina zor zitzaien urtero, *lakari* bat labore bakoitzeko.

Baserritarraren ekonomia zamatzen zuten urteroko zerga hauen barruan, Erdi Arotik zetozen *Amarrenak* edo ditximak eta *Primizik* ekarriko ditugu hona, 1837.ko uztailaren 29ko lege batez ezabatuak izan zirenak. Baina ebazpen hori apurka apurka joan zen indarrean jartzen eta zenbait herritan poliki eta berandu aplikatu zen.

1754ko apirilaren 29ko gorago aipatu dokumentuaz dakizkit Ormaiztegiko Amarren eta Primiziekin zerikusia duten erreferentzia batzuk. Horrela dakigu 14 urtetan zehar (1740-1753), amarren guztien erdia eta primizia guztiak zein partidatan erabili izan ziren, alegia eliz eta udal artxibategiak, apaiz etxeko lanak, maisu erlojugilea, Ignacio Ibero eraikuntza peritoea etab., hala nola eliz parroikiko hargintza ordaintzeko:

(...), y el Iltmo. Sr. Obispo de este Obispado de Pamplona mandó así en dicha iglesia de esta Villa, como en otras, el que se encajonasen las sepulturas a costa de las que gozaban y usaban, para lo que fue preciso renovar y anivelar el losado de los caminos de dicha iglesia, por hallarse con mucha desigualdad, poniendo losas nuevas en lugar de las que se hallaban rotas, lo cual, y el mudar la pila bautismal al paraje que el expresado Ignacio de Ibero señaló en la dicha su declaración...⁶

Otsailaren 3a San Blas eguna da. Eliz parrokian soroetako hainbat emaitz bedeinkatzen den eguna da, esate baterako *babarruna* edo *india baba*, *garia*, *artoa* etab.

6. Ormaiztegiko udal artxibategia. Aipatu dokumentutik.

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4ean, gazteak eskean irtetzen dira, *Santa Ageda* eskea esaten zaiona burutuz, bertan adiskide taldeek hartzen dute parte, lagunartekoak. Eskearen saria txorizoa eta urdaia izaten ziren, *burruntziak* edo *buruntziez* jasotzen zutena, eta uste baino gutxiago jasoz gero, erdeinuzko kantuaz egingo zuten despedida:

Etxe azpian azune
Etxekoandria lizune
Etxegaran oillarra
Nagusi jauna doillorra.

Inauteriak, otsailean ospatu ohi direnak, Ormaiztegi aintzinako bizitzan *lñautegik* zuten izena. Berrogeitamargarren igandea Karnabal Egune zen, jarraian Astelen lñautea zetorren, eta Asteartiñe edo Asteartiñe lñaute. Aurreko ostegunean, Ostegun Gizenean abiatuak zirelarik. lñautegik zirenean neska-mutil gazteak mozorroto eta estali egiten ziren, *mozorrotoak* zuten guztiek izena. Sarritan jantziko zen mutila neskatilaz eta alderantziz.

Mozorrotoek herria iragaten zuten aho-soinuaren musikaz dantzan, nor bere kasa. Enparantzan antzesprenak egin ohi ziren eta eskenategi horretan, akordeoilaria bide, arratseko dantzaldiak ixten zuen festa, kanpaien *Abemari-tako* deia entzuterakoan.

Mozorrotoak ugaritu egiten ziren iñauteritako asteartean. lñautegitako azken egun horretan ez ziren ormaiztegiarren etxeetako mahaietan torrija edo *torrodak* faltako, ez eta *erroska-ogiek* ere. Erroska hauek baba alea zeramaten barruan, eta topatzen zuenari senitarteko bromaren bat sufritzea tokatuko zitzaion edota, tabernan baldin bazegoen, bere eta bere adiskideenak ordaindu bcharra. Ohitura hau ez zen Epifania egunekoa, gaur egun honela ezagutzen badugu ere. Nahasketarik bat ere egon ez dadin errepikatuko dut erroska hauek iñauteritako asteartean jaten zirela, *asteartiñe iñaute* egunean.

Otxailloren artzai leienda berritzearekin, gune geografiko anitzetan aurki daitekeen zozomikotearen antzekoa, uzten zuten atzean *otsaila* ormaiztegiarrak.

Martxorako daukan zeregin berezia arbia edo *arbie* biltzea da, baserrira saskia lepoan hartuta, *lepo-saskian* eramaten zutelarik.

Arbia lehen deskribatu dugun *otaskatik* pasatzen dute, eta abereak elikatzeko erabiltzen dute. Arbia jaso ahala lurra laiatzen zuten ondorengo arto ereiketarako.

Laia aipatuz gero, esan hirunaka laiatzen zutenak *layarin irukotea* zirela, eta binaka egiten zutenak *layarin bikotea*. *Layarin irukotean* emakumearen lekua erdian zegoen eta berak, *mutikoak bezalatsu*, gizonezkoek baino tresna arinagoa erabiltzen zuten.

Laiaketarako teknika aldatu egin zitekeen, eta aldatu egiten zen egiazki, leku batetik bestera. Ormaiztegin, lur mokorra edo *zotala* erabat irauli gabe

altxatzen zuten, hegalez uzten zuten, gero erdibitu eta honela lurrari etekin hobea atereaz. Zeregin honi *pikatu* esaten zitzaion.

Martxoan hasten da lur goldatu berrian edo *lurberrin*, patataren ereintza. Patatari *lurazpiko janarie* esaten zioten, eta hasiera batean soilki abereentzako elikagaia zen. Ormaiztegin esaten didate herrian lehenik erein zuen baserria, 1880. urtea inguru, Mendizabal-Garakoa izan zela.

Neguari berez dagozkion zereginetan, *txerri-iltzea* martxoan kokatuko dugu. Lan hau, gehienetan, ganadu hiltzailearen ardura izaten zen, *txerriiltzailia* esan izan zaionarena, eta bere lana mailuz eta kakoz baliaturik, goizean egun hoi zuen eta ohitura izan denez, hildako aberearen gibel zati bat, ardoa eta kafea jasotzen zituen ordainetan.

Egun hartako arratsaldean, txerri hiltzaileak zatitu egiten zuen, egurrezko kako edo *sardango* batetatik, etxearen kanpokaldean egurasteko zintzilik jarria zuten txerria. Lan guztiaren trukean, *txerriiltzailiari* odolki eta zerrikiz ordaintzen zitzaion.

Zerri hiltzearekin, zuzpeltu egiten da auzotarren arteko harreman bidea. Ez da besterik, abere hil berriaren zati txiki batzuren oparia, Ormaiztegin *txerri erregaloak* izenez ezagunak, gehienetan neska edo mutiko batek eskeintzen dituenak, esanez: *Gure txerri txikiaren puxkak, odolki ordainetan*.

Apirilean martxoko zereginetan jarraitzen dute: arbia eta patata batez ere eta hasi egiten da artoaren ereintza.

Gurutze Santuaren Asmakizunaren jaiegunean, maiatzaren 3an, etxeko atari eta lehiotan nahiz soro alorretan, ereinotz bedeinkatzuko gurutzeak ipintzen zituzten, aipatua utzi dugun formulari jarraiki.

Maiatzean, soro berean eta aldi berean, artoa eta babarruna ereiten dira. Horretarako, behar bezala laiatutako lurrean *arrastoa* izeneko esku lanabesa erabiltzen zen.

Maiatzean hasten da belar mozketa, zelaiean zabaldua lehortzen utzi beharko dena. Egurrezko arrastelu edo *eskuarez* biltzen da eta gorde ganbarako sapaialdean edota meta altxatuz. Neguan zehar, belar lehorra abereen janari izango da.

Loreen hilabetean, *loraillean*, gaudela hartu behar dugu kontutan eta loreak biltzen dituzte eliz ospakizunetan eliza hornitua azal dadin.

Ekainean garia eta artoa jorratzen dira eta hilabete honen azkenaldera ematen zaio hasiera, lehen anuntatua utzi dugunez, azaroan ereindako garia eta lihoa ebakitzeari.

San Juan bezperan Ormaiztegiko famili bakoitzak landareak jasotzen zituen biharamunean bedeinkatua izango zen sorta edo *erramilletea* prestatzeko. *Klabelinez*, *lirioz*, *San Juan lora* edo margarita haundiz, *gari buru batez*,

gerezi sorta batedo *keize txorta* batez eta ezpata loreez osatzen zuten erramua. Ganbarako goikaldean gordeko zuten, eta familian heriotzarik gertatuz gero lore bedeinkatu hauetako eskukada edo *eskutaratxo* bat egosten zuten, ur horrekin garbitzeko hildakoaren gorpu edo korputza. Urtea iragan ondoren landare sortatik gera zitekeena erre egiten zuten etxeko sukaldean.

San Juan bezpera gauean, zenbait gaztek *makala* ekarri ohi zuen herrira, ixilpean lortu ondoren; udaletxeak ordea ezarritako salneurriaren arabera ordainduko ziren. Zuhaitza bizkarrean hartu eta enparantzan *landatzen* zuten. Horretarako, lurtean zuloa egin eta zuloaren ondoan bi ohol ipintzen zituzten zutik, eskuekin eutsiaz. Makala zutikatzeo teknika enpirikoaz baliatzen ziren. Zuhaitza, behekaldea aipatutako oholetan bermaturik zeukana, eskailera baten kontra altxatzen zuten. Jarraian, eta palankaren bidez, makalaren oinaldea sartzen zuten larogei bat zentimetrotako hondoa zeukan zuloan.

San Juan zuhaitzari errematea emanez lore sorta ipini ohi zuten, azaburu bat eta baratzuri korda bat, edota oilarra bere kaiolean, makal gainera igoztez eta bertatik kentzea lortzen zuen lehenak eskuratuko zituenak. Gauerdian inguruan zuhaitza landatzeko lanak amaitutakoan, gazteek txokolatea hartzen zuten edota baratzuri zopak, jai giro hartan bertan prestatuak, udaletxeak ordaindutako bonbil ardoaz.

San Juan Bataiatzailearen bezperako *illunabarrean*, *Abemaritakoaren* kanpai hotsak urrunagoko edo gertuagoko baserrietaraino udako solstizioaren sua pizteko garaia aldarrikatzen zuenean, izaten zen *pizti txar* guztiak uxatuko dituen *San Joan* sua pizteko garaia.

San Juan eguneko *egunsentian*, *lizar* adarrak moztu eta etxeko, eta ikuiluko, atariaren bi aldetan ipintzen zituzten. Tximista edo *oñazkarra* uxatzen zuten, eta duen, lizarra da.

Jai horretako arratsaldean, eliz parrokiako kanpai hots artean, San Juan suak pizturik zirauen enparantzan. Su honek -azken urteotan Santu Iragarleen bezperan pizten dena ospakizun solstizialaren eitea zuen giza talde guztiarentzat.

Gari eta lihoa ebakitzeak uztailean ere aurrera dagi. Bai garia bai lihoa –Erdi Aroan Europa guztian hedatu ziren kultiboak– azauetan, *gari-azaroak*, loturik bildu ohi zituzten.

Eguzkitan lehortu aurretik, garia aletu egiten zen *gari-arrie* izeneko harri gainean kolpatuz. Hau, uztaileko azken egunetan hasi eta abuztuan zehar luzatzen zen eginkizuna zuten.

1598. urtean, Urretxutik Ormaiztegira anega bat gari garraiatzeak errealdia balio zuen, eta beste hainbeste Ormaiztegitik Ordiziara⁷.

7. Juan Garmendia Larrañaga: *Gremios, Oficios y Cofradías en el País Vasco*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, 1979. 112 or.

Uztailan prestatzen da lurra arbia ereiteko.

San Lorentzotan arbie egite. (San Lorentzotan –abuztuaren 10ean– eraiten da arbia). Abuztu bukaeran eta iraila hasieran jorratzen da arbia: *jorra bat, arbi bat: bi jorra, bi arbi: iru jorra, naiko arbi.*

Arbi jorratzearekin batera, iraileko eginkizun izan ohi da baserritarrarentzat, azaroan bezala, etxeko sutarako egurraz hornitu beharra.

Urriaren hasiera garoa moztearekin batera etorri ohi da gehienetan, eta lan honi garotea esan izan zaio. Abereen azpitarako erabiltzen den landare honen garraioa, gurdiz egiten da. Garoa baseritik gertuko etxola batetan uzten zuten eta garoaz altxatzen zituzten beharrezko meta edo *subatzak*.

Urrian, azaroan bezala, garia erein eta sagarra, gaztaina eta babarruna biltzen dira. Babarrunaz emakumea arduratu ohi da, eta gaztainari buruzkotan azaroako eginkizunei eskeini dizkiegun lerroetan zabaldu gara.

Sagarrari buruz esan, zuhaitzetik jasotzeko *garrastea* esaten dioten oinarrri mugikorrek eskaileraz baliatu ohi zirela. Ormaiztegiko sagar klase ugarien artean aipatuko ditugu: *mokotxoa; Errezil sagarra; urtebie; urtebi-zurie eta erregine gaxie* (erregineta), etxeko kontsumorako eta merkatuan saltzeko zirenak, eta *balanzategie, txori zar aundie, txori zar txikie, merkeline eta sagar gorrie*, sagardoa egiteko tolarerako erabiltzen zituztenak, baserri askotan izaten bait zen tolarrea. Tolare apal eta arrunta, soilik harrizko ontzi bat nun egurrezko mailuaren kolpeez sagardoa zehatu. Ikus dezagun Ormaiztegiko sagardoaz Juan Ignacio Iztuetakbere *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira* edo *Historian* egiten duen komentarioa:

Ormaizteguico Errian bertako sagarraquin Don Martin Echezarreta-coak bere echean egindako sagardoa icusi det Vitoriano cafean, iru chiquico bombilla zazpi errealean saltzen. Jaun prestu oni escatu izan niozcan sagardo beretic bi bombilla Donostian bici nintzala bertaco iru edo lau andizquiri eracusteagaitic; eguin ciran mesede biraltzeaz, eta arrituric guelditu izan ciran frogatu zutenac beraren indar eta gozotasuna⁸.

Baina orain arduratzen gaituen bezalako gizatalde baten bizitza esanahi desberdineko hainbat gertakizunek aztoratzen dute, zirkulu zabalago edo estuagoan. Jaiotzaren eta ondorengo bataioaren kasua da, edota eztaietarako erritoena eta heriotzaren egia bazterezina.

Ezkontzaren ospakizuna, modu zuzenagoan edo sahieska, herriaren parte haundi batek bizi izaten zuen. Gurdia, neska ezkon berriaren etxeko tresnez kargatu, eta gure mendietako antzinako bideetan etorriko zen, bere gehiegizko kirrinka nahastezinaz, bisitatzen gaituzten arrotzen hainbat interpreta-

8. 1975eko edizioan Jose Lasa Apalategik gaztelaniara egindako itzulpenetik: *Historia de Guipúzcoa. Guipuzcoaco Condaira*. Juan Ignacio Iztueta. La Gran Enciclopedia Vasca Argit. 592 or.

ziorako gaia gertatu denaz, gértakizunaren aitzindaritzak dakarrelarik. Gurdia garraiatzen zuten abereek bizi egiten zuten jaia, behin eta berriz zirikatzen zituen eztena ere jai giroan egongo baitzen. *Kopetekoak* estrainatu berriak ekartzen zituzten eta manta anitz koloredunez eta atsedenek gabe mugitzen, zintzarri txiki ugarizko lepokoez apainduak.

Gurdiaren oheko aurreko makil perpendikularra, ezpata, ardatzak errematatzen zuen, bere estopazko mutur edo amokoarekin. Gurdiaren atzetik ezkonberriak joango ziren, bere aitagin-amaginarekin, familia eta gonbidatuekin, auzoko baserri guztietako ordezkariaren bat gutxienez tartean. Presarik gabe joaten ziren, mantso, altxafuero edo *altxapero artean*, *alboka* doinua lagun. *Eztai bazkarie* egin ondoren, emakume ezkonberriaren guraso edo beste ahaideek erretiratu egiten zituzten gurditik, guztien begi bistan, han ekarritako ondasunak, objektu bakoitzaren izena eta kantidadea kantatuz, gero baserriko atarian utzi eta guztion aurrean dotearen dirua entregatu ondoren, ezkonberrien logelara, *apusintue*, eramateko.

Jai ospakizuna, *albokaz eta panderoaz*, eta inoiz akordeoiaz, *filarmónica* edo *esku soñuez*, arratsalde guztian luzatzen zen. Dantzaren urren afaria, eta horretarako txala zeukaten lehenagotik hila. Jai giroak bi edo hiru egunez iraungo zuen, atsedenaldirik ganbarako sapaialdean edo ganbaran bertan egiten zituztelarik.

Emakume ezkonberriak buruzapia edo *buruko paiñelua* jutzen zuenean bereganatzen zuen *etxeoandretza* eta, gainera, emakume ezkondua zela, *andrea zala*, ziurtatuko zuen froga edo agiria zen.

Ezkonberriak hurrengo igandeko meza nagusira joango ziren. Mutila gizonzkoentzat berezitako lekura abiatuko zen eta emakumea etxearen luzapen zen hilobiaz, *sepulturea*, jabetzen zen.

Erreza da erditzerakoan horretarako bere borondatez eskeinitako auzakideren baten laguntza izatea, bataiatzerakoan, *iñudeak* eramaten zuen haurra. Elizara aitapontekoak eta *ama-pontekoak* joan behariko zuten. Aita nahiz ama pontekoek bere kideak zituzten lagun, eta hauek, gizon nahiz emakume, leku-kotza egiten zutenak, *laguntzailleak* izenaz ziren ezagutuak.

Bataioaren ospakizuna eliz atarian hasten zen kandela bat piztearekin, Kredoa erreztatuz bataiontzirantz abiatzeko.

Ama berriak etxea uzten zuen lehen aldia elizara joateko izaten zen, eliz-sartzea esan ohi zitzaion bisita egitera.

Eliz-sartzetik zenbait egunetara, eta gehienetan igandez, *martopillek* izeneko merienda ospatu ohi zen, bertara erditu zuenaren familia eta auzakideak gonbidatuz. *Martopilletan* ez zen txokolaterik faltako, burutxa edo platano itxurako azukrearekin.

Haurra bataiatu gabe hiltzen bazen, ez zitzaion egiten haurren ofizio edo *aingeru* entierrik, eta bedeinkatu gabeko lurrean hobiratzen zuten. Aingeru

entierroa dela eta, heriotzarekin zerikusia duen zenbait ohituratara inguratu gara.

Heriotza heldutakoan apaiza deitzen zuten eta berri emate latz horren ardura etxe berean bizi zen jabekide edo maizterkideak hartzen zuen, edota auzoko ahaiderek gertuenetako batek. Albisteari kanpai deia jarraituko zitzaion, *il-kanpaia*.

Pertsona on baten heriotzak euria dakar. Mundua uzten duen arima onak, zeruan euritea. Pizkundeko Pazkoan hiltzen dena zerura doa eta Inauteri Igan-dean hildakoa infernura.

Hauek eta heriotzarekin lotutako beste hainbat erretrau herri desberdinetan ematen dira.

Hildakoa, San Juan Bataiatzaile eguneko goizean bedeinkatutako sorta baten urez garbitzen zela errepikatuko dut, eta berdin egin zitekeela, eta egiten zela erantsiko dut orain, ereinotz bedeinkatua egosi ondoren.

Gaua gorpuaren beilan pasatzeko, *gau-belara*, auzo eta senitarteko hurbilanak biltzen ziren.

Gehienetan, auzakideak arduratzen ziren gorpua elizara eta hilerrira eramaten; *gorputze eramantzailleak* esan ohi zitzairen, eta bazkaritara gonbidatzen zituzten.

Gorpuaren segizioak bide jakina egiten zuen, *gurutzebidea*, eta ohituraren poderioz bide honek, *gurutze bideak*, libre behar zuen beti, oztoporik gabe, debekatua zegoenez bertan *langak* ixtea.

Hileta edo *entierroko mezan*, emakumeek txanpon bat edo gehiago utzi ohi zuten horretarako prestatutako saskian. *Erresponsoa* zen hori.


Familia bakoitzak bere *argizaiola* eraman ohi zuen elizara, argizaria bilduta daukan zur edo ohol bat, hilobiaren gainean ipintzen zena, hileta amaitu ondoren erretiratzeko.

Carlos III.aren errege zedula batek, 1787.ko apirilaren 3an emana, debekatu egiten zituen eliz barruko hilobiraketak eta hilerrak kanpoan eraikitzeko agindua ematen zuen. Disposizio honek aurre egiten zion aintzinako jokabidearen indarrari eta herriarengan pisu handikoak ziren erlijiozko eta sentimentuzko arrazoiei; denbora luzea beharko zuen orokorki aplikatua izateko.

Antzeko zerbait esango dugu hileta ondoko mahai oparoaren gehiegikeriaz, zenbait disposizioaren bidez arautu nahi izan zena, praktikan eragin eskasa izan bazuten ere.

1539ko irailaren 19koa da Gasteizen kokatutako juezak entierrotan egiten ziren gehiegizko gastu, edate eta jatei buruzko txostena egin zezan eskatzen zuen errege Probisioa.

Gipuzkoako Foruek debekatu egiten zituzten hileta eta hobiratzeetako bazkariak, hirugarren gradurainoko ahaideei eskeinitakoak ez ezik. Geroago Gipuzkoako Batzarre Nagusiek erreparatuko zieten gehiegikeria hauei. Pablo de Gorosabelek esaldi biribilean adierazi zuenez: *Los muertos destruían a los vivos*. Nere aldetik gaineratuko dut herriari ezer esaten ez diotenean eta gizarteak anakronikotzat, lekuz kanpokotzat dituenan direla usuario eta ohiturak baztertzen eta sahiesten⁹.



Ormaiztegi. Labores, entre la fiesta y los ritos fúnebres = Ormaiztegi. Lana, festaren eta heriotz erritoen artean / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Tomas Zumalakarregi Museoa. Asterketa historiokoak = Museo Tomás Zumalacárregui. Estudios históricos*. - Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia = Diputación Foral de Gipuzkoa. - N° 1 (1990), p. 47-63, 47-64.- ISBN: 84-7907-015-3.

Texto bilingüe castellano-euskera.

9. Lan honetarako atseginez eta bihotz zabalez eskeini didaten lankidetzak baliotsu eta ezinbestekoagatik idatzia utzi nahi dut nere eskerrik beroena Kasilde Arzelus Loiola, Francisco Elorza Aierbe, Pio Galarraga Goikoetxea, Millan Irizar Bengoetxea, Jose Domingo Iurrita Jauregi, Baltasar Mancisidor Goia eta Eulugia Otegi Murua-ri.